

BALIABIDEAK



BALOREZKO PROPOSAMENA GARATU

BEZEROARNGANA IRITSI

BEZEROAREKIKO HARREMANA MANTENDU

DIRU SARRERAK LORTU

FUNTSEZKO BALIABIDE MOTAK:

- Baliabide fisikoak
 - Instalazioak
 - Bulegoak
 - Ibilgailuak
 - Makinak
 - Sistema informatikoa
 - Salmentarako puntuak
 - Banaketa sarea
- Baliabide intelektualak
 - Marka
 - Jabego ezagutza
 - Patenteak
 - Egile eskubideak
 - Elkartuak
 - Datu baseak
- Giza baliabideak
 - Sormena
 - Ezagutza
 - Gaitasun komertziala
- Finantza baliabideak
 - Eskudirua

- Kreditu-linealak

BALOREZKO PROPOSAMENA GARATU:Gure balore proposamenaren helburua ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako irakaskuntza eskaintzea da, hurrenez hurren, ikasleen ikaskuntza prozesuaren berezitasunak kontuan hartuta. Horrela, hezkuntza pertsonalizatuagoa eta motibatzailea eskaintzen dugu.

Eskolak metodologia berritzaileak eta motibagarriak erabiliko ditu, baita ikasleek beren erritmoan ikasteko aukera izango duten baliabide eta material didaktikoak ere. Adibidez, ikasleen garapenaren jarraipena egiteko software bat erabiliko dugu, irakasleen eta gurasoen arteko elkarreragina hobetzeko.

BEZEROARNGANA IRITSI: Gure bezeroak (gurasoak eta ikasleak) erakartzea eta haien fideltasuna lortzea da, sare sozialetan, ahotsaren bidezko publizitatean eta webgunean oinarritutako kanalen bidez.

Webgunean eta sare sozialen bidez iragarkiak eta eduki baliotsuak argitaratuz, gure eskola zerbitzua sustatuko dugu. Bezero potentzialek informazio erraza eta erabilgarria eskuratuko dute online, eta lehenengo saioak eskaintzeko promozioak egingo ditugu. Gainera, laguntza pertsonalizatua eskainiko dugu haien kezka eta galderak azkar konpontzeko.

BEZEROAREKIKO HARREMANA MANTENDU: Bezeroen gogobetetasuna eta konfiantza mantentzea da, baita beraien iritziak eta beharrak aintzat hartzea.

Gurasoei eta ikasleei laguntza pertsonalizatua eta jarraipen osoa eskainiko diegu. Haur bakoitzaren aurrerapenak etengabe jakinaraziko dizkiegu, eta aholkularitza edo orientazio saioak antolatuko ditugu, haien beharrak hobetzeko. Aldi berean, gurasoentzako bilerak eta feedback sistemak ezarriko ditugu.

DIRU SARRERAK LORTU: Gure enpresak etengabeko diru-sarrerak lortzea eta finantza irabaziak mantentzea beharrezkoa da. Ikasleen matrikulazio tasa handitzea eta hainbat irakasle eta ikasgai eskaintzea lortuko dugu. Gainera, egoera bakoitzera egokitutako paketeak eskainiko ditugu (adibidez, taldeko ikastaroak, indibiduala, etab.). Promozio eta deskontuak eskaintzen izango gara ikasle berriak erakartzeko.

FUNTSEZKO BALIABIDE MOTAK:

Baliabide fisikoak:Geletan giro egonkorra eta egokitutako baliabide teknikoak izango ditugu. Era berean, irakaskuntza prozesua hobetzeko tresnak eta material didaktikoak eskuragarri izango ditugu.

Baliabide intelektualak:Erabiliko dugun metodologiaren eta irakasleen prestakuntza etengabea arrakasta izango du. Gure enpresaren izena ezaguna izango da, eta ikasleek egindako aurrerapenak proiektatuko ditugu gure markaren ospea handitzeko.

Giza baliabideak: Irakasleek espezialitate bakoitzean prestakuntza izango dute eta etengabe berritzeko eta ikaskuntza berritzaileak aplikatzeko beharrezko baliabideak izango dituzte. Langileak ondo prestatuak eta motibatuta egongo dira, haien lanarekin pozik eta eraginkorrak izateko.

Finantza baliabideak: Finantza baliabideak banku-kredituetatik, inbertsio pribatuetatik edo diru-laguntza publikoetatik lortu ahal izango dira. Gainera, ikasle kopurua handituz eta zerbitzu osagarriak eskaintzen, etengabeko diru-sarrerak lortuko ditugu.